

AISIALDI TAILERRAK • TALLERES DE TIEMPO LIBRE

EGUNEKO ZENTROAK • CENTROS DE DÍA

Gure museoa. Zure museoa.

Nuestro museo. Tu museo.

Museoa guztiontzako espazioa da; horregatik, gaitasun eta egoera desberdinak dituzten pertsonentzako tailer inklusiboak eskaintzen ditugu.

Tailer bakoitza esperientzia aberasgarri eta parte-hartzailea da, elkarrekintza, memoria eta sormena sustatzen dituena.

Museoan irmoki sinesten dugu kulturak, historiak eta ezagutzak pertsona guztien eskura egon behar dutela.

Gure helburua da edozein pertsonak, gaixotasun, ezintasun, urritasun edo behar bereziren batekin bizi den kontuan hartu gabe, senti dezala gure museoa ere bere museoa dela. Gune hau guztiontzat abegitsua, irekia eta aberasgarria izatea nahi dugu, elkarrekin partekatze, ikasteko eta gozatzeko topagunea.

Liburuxka honetan, lantegien proposamen bat aurkezten dizugu, historia modu dibertigarrian, atseginean eta talde bakoitzaren behar eta gaitasunetara egokituta hurbiltzeko pentsatua. Izan ere, ikastea ez da soilik ezagutza berriak eskuratzea, esperientziak bizitzea, kalitatezko uneak partekatzea eta zerbait komunaren parte sentitzea ere bada.

Tailer bakoitza amaitzean, gure helburua da guztiek oroitzapen on bat baino zerbait gehiago eramatea berekin: ikasketa berri bat, irribarre partekatu bat, beren eguna aberastuko duen eta gure ondarearekiko eta besteekiko lotura indartuko duen bizipen bat.

El Museo es un espacio para todos y todas, por eso ofrecemos talleres inclusivos pensados para personas con diferentes capacidades y circunstancias.

Cada taller es una experiencia enriquecedora y participativa, que fomenta la interacción, la memoria y la creatividad.

En el museo creemos firmemente que la cultura, la historia y el conocimiento deben estar al alcance de todas las personas.

Nuestro objetivo es que cualquier persona, con independencia de si convive con alguna enfermedad, discapacidad, deficiencia o necesidad especial, pueda sentir que nuestro museo también es su museo. Queremos que este espacio sea un lugar acogedor, abierto y enriquecedor para todos y todas, un punto de encuentro donde compartir, aprender y disfrutar en compañía.

En este folleto te presentamos una propuesta de talleres pensados para acercar la historia de una forma divertida, amena y adaptada a las necesidades y capacidades de cada grupo. Porque aprender no solo es adquirir nuevos conocimientos, también es vivir experiencias, compartir momentos de calidad y sentirnos parte de algo común.

Al finalizar cada taller, nuestra finalidad es que todos y todas se lleven consigo algo más que un buen recuerdo: un aprendizaje nuevo, una sonrisa compartida, una vivencia que enriquezca su día y refuerce la conexión con nuestro patrimonio y con los demás.

BILBO WARHOL-EN ERARA


Euskal Abertzaletasunaren Museoan “Bilbao a lo Warhol” tailerra aurkezten dugu, Pop Art mugimendura hurbiltzeko proposamena, gure hiriko ikur bereizgarrienetako baten bidez: Bilboko baldosa.

Andy Warhol-en eta haren obra ezagunaren, Campbell’s Soup Cans-en inspirazioarekin, egunero zapaltzen dugun elementu arrunt bat kolorez eta nortasunez beteriko sormen-lan bihurtuko dugu. Artea gure inguruan dagoelako.

BILBAO A LO WARHOL

En el Museo del Nacionalismo Vasco presentamos el taller “Bilbao a lo Warhol”, una propuesta para acercarnos al Pop Art a través de uno de los símbolos más característicos de nuestra ciudad: la baldosa de Bilbao.

Inspirándonos en Andy Warhol y en su icónica obra Campbell’s Soup Cans, transformaremos un elemento cotidiano que pisamos cada día en una creación artística llena de color y personalidad. Porque el arte también está en lo que nos rodea.



GURE SINBOLOAK: LAUBURUA

Lauburuari eskainitako tailerra proposatzen dugu, euskal kulturako ikur adierazgarrien eta ezagunenetako bat.

Jarduera honen bidez, serigrafiaren teknika artistikoa ikasiko dute, ekipamendu handirik gabe eta modu errazean praktikan jar daitekeen sormen-prozesua. Parte-hartzaile bakoitzak bere kamiseta lauburuarekin apainduko du, ikaskuntza esperientzia praktikoa eta pertsonal bihurtuz.


Horrez gain, ikur honen esanahia eta jatorria ezagutuko dituzte, gure historian eta tradizioan errotuta dagoen sinboloa baita. Sormena, nortasuna eta kultura uztartzen dituen proposamena.

NUESTROS SÍMBOLOS: EL LAUBURU

Proponemos un taller dedicado al lauburu, uno de los símbolos más representativos y reconocibles de la cultura vasca.

A través de esta actividad aprenderán la técnica artística de la serigrafía, un procedimiento creativo que puede ponerse en práctica de forma sencilla y sin necesidad de grandes equipamientos. Cada participante decorará su propia camiseta con el lauburu, convirtiendo el aprendizaje en una experiencia práctica y personalizada.

Además, conocerán el significado y los orígenes de este símbolo tan arraigado en nuestra historia y tradición. Una propuesta que une creatividad, identidad y cultura.



ARBOGLIFOAK

Ameriketara joandako euskal artzainen emigrazioaren historia ezagutzeko tailer berezi bat proposatzen dugu.

Arboglifoa zer diren azalduko dugu: Amerikako basoetan euskal artzainek zuhaitzetan egiten zituzten grabatuak, haien azterna, bizipenak eta nortasuna jasotzen zituztenak. Marka horiek gure memoria kolektiboaren eta euskal diasporaren historiaren parte direla ikusiko dugu.

Ondoren, hari gidari horri jarraituz, zuhaitz-enborren xafla edo diskoekin lan egingo dugu, arboglifoetan inspiratutako giltzatak polit bat sortzeko. Historia, tradizioa eta sormena uztartzen dituen proposamena.

ARBOGLIFOS

Te invitamos a participar en un taller que nos llevará a conocer la historia de la emigración de los pastores vascos a América.

Nos adentraremos en el significado de los arboglifos, los grabados que aquellos pastores realizaban en los árboles de los bosques americanos, dejando constancia de su paso, sus vivencias y su identidad. Descubriremos cómo estas marcas forman parte de nuestra memoria colectiva y de la historia de la diáspora vasca.

Siguiendo este hilo conductor, trabajaremos con láminas o lascas de tronco de árbol (discos de madera) para crear un bonito llavero inspirado en aquellos grabados. Una actividad que une historia, tradición y creatividad.



EDONTZI-AZPIKO LAUBURU

Lauburu euskal kulturaren ikur nagusietako bat da, eta Euskal Herria eta euskal herritarrak bereizten dituen sinboloa. Tailer honen bidez, parte-hartzaileek haren historiari, morfologiari eta guretzat hain berezia den ikur honen beste hainbat xehetasuni buruz gehiago ikasiko dute.

Arte plastikoak landuko ditugu, zehazki estanpazio-teknika, eta bakoitzak bere kortxozko azpimahai-txartela (posavasoa) pertsonalizatuko du, kolorez beteriko lauburu dibertigarri eta bakarra sortuz. Horrela, sormena eta ikaskuntza uztartzeaz gain, gosari, bazkari edo afari ordua alaituko dugu egunero gure diseinu propioarekin..

POSAVASOS LAUBURU

El lauburu es el icono por excelencia de la cultura vasca y el símbolo con el que se distingue al Pueblo Vasco. A través de este taller, las personas participantes conocerán un poco más sobre su historia, su morfología y muchos otros detalles de este símbolo tan nuestro.

Trabajaremos las artes plásticas, en concreto la técnica de la estampación, y cada participante personalizará un posavasos de corcho creando un lauburu divertido, único y lleno de color. De esta manera, además de aprender y crear, podremos alegrar cada día la hora del desayuno, la comida o la cena con un diseño propio y especial.



OROITZAPEN DIGITALAK


Tailer honen bidez, parte-hartzaileei teknologia berriak hurbildu nahi dizkiegu, aukera praktiko eta eskuragarri bat eskainiz haien aukerak ezagutzeko. Jardueran zehar, gure oroitzapenak formatu digitalean nola eraldatu eta gorde ditzakegun aztertuko dugu, tresna teknologikoak modu errazean eta sortzailean erabiliz.

Horrela, teknologia berriak gure memoriaren eta historia pertsonalaren zaintzan aliatu bihurtzen dira, bizipenak, argazkiak eta dokumentuak denboran zehar bizirik eta eskuragarri mantentzeko aukera emanez.

RECUERDOS DIGITALES

Queremos acercar las nuevas tecnologías a las personas participantes en este taller, ofreciendo un espacio práctico y accesible para descubrir sus posibilidades. A lo largo de la actividad exploraremos cómo transformar y conservar nuestros recuerdos en formato digital, utilizando herramientas tecnológicas de manera sencilla y creativa.

De este modo, las nuevas tecnologías se convierten en una aliada para preservar nuestra memoria y nuestra historia personal, facilitando que vivencias, fotografías y documentos puedan mantenerse vivos y accesibles en el tiempo.



Ibáñez De Bilbao, 16, Edificio Sabin Etxea
94 405 64 50
difusioa@sabinoarana.eus
www.museodelnacionalismovasco.eus